

rente como era la crisis en que se encontraba inmerso el espectáculo cinematográfico.

Las dos empresas vitorianas con estos dos últimos cines, a parte de consolidar su presencia en la ciudad, con 9 salas (Vitoriana de Espectáculos) y 3 (Antonio Ochoa) parecían desafiar a una crisis que a medida que pasaba el tiempo se hacía cada vez más evidente. Algo a lo que no debían ser ajenas ellas mismas pues entre 1967 y 1975 el número de espectadores alaveses se había reducido en 1,23 millones.

Además, en vez de apostar por la construcción de cines con más de una pantalla, como se había comenzado ya hacer tanto en España como en el País Vasco, seguían optando por la opción tradicional, un cine una pantalla. Con todo lo que suponía de limitación de la oferta y encarecimiento de los costes de explotación, a lo que había que añadir, por una parte, las mayores posibilidades de entretenimiento existentes, la extensión de la televisión, que nutría una parte importante de su programación con la proyección de películas, y, por otra, la recesión en que había entrado la economía mundial en 1973, cuyos efectos se empezaban hacer visible también en el Estado español y, especialmente, en el País Vasco.

Todo ello delineaba un escenario muy diferente al vivido hasta entonces y que se iba a materializar en los años siguientes de forma tan diáfana como letal para la exhibición en Alava.

Europa, idea modura, Francisco Xabier de Landa bururen kazetari idazlanetan

MAIDER KORO MARAÑA SAAVEDRA*

Francisco Xabier de Landaburu y Fernández de Betoño (Vitoria-Gasteiz, 1907-París, 1963), euskal historia garaikidean, intelektual teoriagile edota aztertzaile politikoa baino ezagunagoa zaigu ardura nabarmeneko karguak izan zituen politikaria bezala (Gorte Nagusiko diputatua 1933an, edota Euskadiko Gobernuako lehendakariordea, 1960-63). Hala ere, doktrina korpusa europazale zein internazionalista zabal, esanguratsu eta argi baten egilea dugu Landaburu. Izan ere, modu nabarian agertuko zaizkigu bertan Erromako Taldearen sorrera ekarriko duten oinarri nagusiak, gerora Europako Batasuna gisa eza gutuko dugunaren hasiera hain zuzen. Ezin galtzen utzi legegile, idazle eta politikari hark, XX. mendeko euskal historian izan zuen parte hartze intelektual nabarmena. Landaburu, Eusko Ikaskuntzan izan zen lankide, baita Baraiabar taldean ere, Azkue, Campion, Barandiaran, Apraiz eta euskal kulturako beste hainbat izen eta pertsonai nagusiekin batera. Eta nahiz eta euskal gizarte eta kulturari zegozkien gai guztiekiko parez pareko arreta eta interesa gorde, begietara ekartzen badugu hark idatzitakoa, proposamen europazaleak, humanistak eta unibertsalak hartzen dute toki nabarmena harengan.

Aipatu ideia guzti horiek, haren kazetari idazlanetan azpimarratzen dira batez ere, argi zein argiago eta behin eta berriz, 1936-39ko Gerra Zibilaren aurretik nahiz gerora ere. Izan ere, gerora, “La causa del Pueblo Vasco” (1956) bere liburuak hartuko ditu kapitulu bakar batean, osotasunean, Europari, Federalismoari eta herrien nortasun eskubideari eta erkidegoari buruzko ideia nagusiak. Aipatu kazetari idazlanek, agerian jartzen digute Landabururen gizarterako izaera aurrerakoia, eta gizarteraren antolakuntzak behar lukeen oinarri federalista. Argi azaltzen dute baita ere, Kristau Demokraziak gizarte eta politikarako dituen pentsamendu zutabeekiko Landaburuk gordetzen duen atxikimendua. Eta ezin aipatu gabe utzi, idazlan guzti horietan aurkituko dugun Landaburu publizista, pedagogo eta gogo europeistaren bultzatzaile sutsu eta bikaina. Bere kazetari idazkera, zuzena da oso, argia, atentzioa berehala eskatzen dizun prosaz osatua, adierazgarria,

* “Sancho el Sabio Fundazioa”
VI. Unibertsitate mailako ikerketa lehiaketaren irabazlea (2003)

eta hein berdinean gerra arteko europeismo ideia aurrerakoien irudi zehatza.

Modu berean izan zen Landaburu, José Antonio Agirre lehendakariaren kontseilaria gertukoetariko bat, nazioarteko politika alorrean. Ardura horrekin idatzi zuen behin baino gehiagotan, gerora Europa nahiz Ameriketako eskenatoki ezberdinetan hark zabaldu beharreko parlamentuaren esatekoa. Agirre 1960an hiltzen denean, Xabier de Landaburu, arreta eta kemen handiagoz emango zaio Euskadiko Gobernuaren nazioarteko harremanari, orduantxe hartuko baitu Lehendakariorde kargua.

Lehendakari berriak, Jesús María de Leizaolak, behin baino gehiagotan goraiatu eta azpimarratuko du nazioarteko esparruan Landabururen ezinbesteko parte hartzea, eta halaxe aitortu ere bere “Escritos en Alderdi” (1980) liburuari egingo dion hitzaurrean: “Así, de 1948 a 1960 -esaten digu Leizaolak-, Landaburu y yo nos dividíamos el terreno de las relaciones internacionales: lo político, ideológico y cultural era su tarea y lo económico y social recaía sobre mí”.(1) Bestalde, Landaburu, euskal nazionalismoko ideiak “berritzearen aldekoen” artean izan zen, Manuel de Irujo eta Jesús de Galíndezekin bat, berrogeita hamarreko hamarkadan.(2)

Horrez gain, Landaburu, gerora Europako Batasuna izango denaren lehenbiziko urrats gisa sortuko diren biltzar eta instituzioetan ere parte ikusten dugu. Europako Kristau Demokraziako Politika Batzordean (1948-1963) kide izan zen Landaburu, Talde Internacional Berriak (Nouvelles Equipes Internationales) hartatik zetorrena. Aipatu erakunde hartako ohorezko batzordean Agirre zen kidea eta Landaburu, berriz, batzorde exekutiboko lankidea, Konrad Adenauer (alemaniarra), Jules Soyer (frantsesa) bezalako pertsonalitateen aldamenean, besteak beste. NEI haien helburuengan, 1949an zehaztutakoak haiek, erreparatu gero, haietan topatuko ditugu lehenagotik eta gerora ere Landaburuk berak ekarriko dituen ideia europar nabarmenenak. NEIko kideek, “europar batasuna gauzatzearen aldekoa” egiten dute erronka eta “kristau zantzuko alderdi eta gizon demokratikoak biltzekoa”. NEIko kideen ustez, ezin da Europa “mundutik aparte” ulertu eta mundu mailakoa ere izango den gobernu izango dute

(1) Ik. Leizaolaren hitzaurrea “Escritos en Alderdi” liburuan, “Obras Completas de Francisco Javier de Landaburu” (O.C.X.L., aurrera) jasotakoa, Idatz Ekintza, S.A. argitaletxea, Bilbo, 1983, IV. Alea, 54. or.. Leizaolaren hitzaurreak osotasunean adierazten digu Landaburuk europar mugimendu eta nazioarteko harremanen inguruan egindako ibilbidea eta haren egiteko nabarmena.

(2) Gai horretan sakondu nahi duenari, ikus “El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, II: 1936-1979”, liburua, Santiago de Pablo, Ludger Mees, José A. Rodríguez Ranzana; Crítica argitaletxea; Madril, 2001, bertan aztertzen dira EAJ-PNV berritzeko Landaburuk ekartzen dituen ideiak. Ideia beretsuak aurkitu ditzakegu beste hainbat egileengan, Koldo San Sebastiánen kasuan adibidez, “Muga” aldizkarian argitaratua, Bilbo: “Tiempos difíciles. Renovación del nacionalismo vasco: Landaburu”; O.C.X.L., III.Alea, 407 orr. eta ondorengoak.

**(I)
FRANCISCO DE
VITORIA LEGE
GIZONAREN
LEHENDABIZIK O
ALDARRIKAPEN A**

amets, Europako batasuna lortu eta gero. NEIko kideak, “Europa egin egiteko beharraz” ari dira etengabe, munduak handik gutxira jasotako hondamendiari (1939-1945) erantzuna bezala. NEIko kideek, gainerako guztien onarpenaz ari da gogor eta “esparru guztietara helduko den pluralismoaren” alde egiten dute. Europa Bateratuak, erakunde horren ustean, “nazio guztien antzera utzi behar dio sendi izpirituak eta politiko bakoitzari izateko aukera eta ahalbidea”.(3)

Landaburu, Europar Mugimenduko Euskal Kontseiluko (1951) bultzatzaile eta kidea izan zen, gaur egungo Europako Batasuna den horren ideia oinarritzeko ekarriko zituena. Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Elkarteak idazkaria ere izan zen Landaburu, Parisen, eta betebeharrak horri esker eutsi zion Maritain edo François Mauriac, edo Verdier kardinala bezalako frantziar intelektualekin harreman etengabeari.(4) Leizaolak berak baieztatzen du Elkarte hark suposatuko zuena: “constituyó en los tiempos mussolinianos el habitáculo prenatal de la Democracia-Cristiana Europea; ese movimiento al que la presencia inmediatamente después, a partir de 1941, de Maritain, dom Sturzo, el lehendakari Agirre, F. Gay, Schrameck y otros en los USA, dio efectivo nacimiento”.(5)

Nondik zetorkion baina, Landabururi, europar erako politikari eta kristau humanista trazua, nondik izaera aurrerakoi eta internazionalista? Landaburuk, Zuzenbide ikasketak eta beharrik Vitoria-Gasteizen beteko zituenak, oso gaztetandik hartuko zituen gogoko Francisco de Vitoria legegilearen ideiak. Ospe handiko legegile harenganako begirunea eta haren jaioterri eta jarreraganako aldarrikapen sutua, ez dago, beraz, gertakizun bitxi huts bat bezala onartzerik, izan ere, Landaburuk berak joko du hura “Kristau Demokraziaren sustatzaile-tzat”. Eta horrela adieraziko du publikoki ere “Radio Euzkadi” bitartez, gasteiztar txit goren eta “Derecho de Gentes”eko sortzailea zenu zeneko laugarren mendeurrena ospatzen zela eta.(6)

Nabarmen agertzen zaigu Landaburu jada 1927an, hogeitau urte besterik ez zituenean, eta kritikoa ikasia eta eztabaida zale gisara gainera, Gonzalo de la Lastrak Burgosko egunkari batean legegile ospetsuaren jaioterriari buruz argitaratu zituen hainbat teoriari kontra eginez. “El Heraldito Alavés” (1927-XI-16) egunkarian argitaratzen du Landaburuk, Lastraren ideiak zalantzan jartzen dituen lehendabiziko

(3) NEI erakundeko ideien laburpena Francisco Xabier de Landaburu ondare dokumentu-lean jasota dago eta NEI erakundeko kideek 1449an sinatutako aitortuenean, O.C.X.L., III.Alea, 73-75 orr..

(4) Verdier kardinala, Parisko Artzapezpikua, “Liga Internacional de los Amigos de los Vascos” izeneko aipatu erakundeko sortzailea izan zen 1938an, eta hartan eman zuten izena Jacques Maritain eta François Mauriac bezalako intelektualek.

(5) O.C.X.L.; IV. Alea, 54-55. orr..

(6) O.C.X.L., III. Alea, 15-17 orr., jasotzen da artikulua.

artikulu bat. Eta luze joango den eztabaida haren ildotik erakutsiko digu gasteiztar gazteak, Nazioarteko Zuzenbideari buruz dakizkien guztiak, gerora garatu ahalko duen pentsamendu politikoaren oinarria.(7)

Aipatu arabar egunkari hartan, kazetaritza ariketa beharko lukeen horren ostean, Venancio del Valek, Landaburu joko du “kazetarien maisutzat”. Hark esaten du Landabururi buruz, 1978an: “Era figura principal en la vida literaria de la capital alavesa”.(8) Argi uzten du, beraz, euskal kulturak haren lanaganako gordetzen zuen begirunea eta arreta. Kazetari moduan, Landaburu, 1930ean, eta hogeita hiru urte baino ez zituela, Donostiako “El Día” egunkari berriko zuzendaria izendatzen dute, zenbait hilabete zehar hartuko duen ardura. Haren gaztetasunaren heldutasuna azpimarratze arren, esan, Landaburuk, egunkarian, lehendabiziko zerbait bertatik eta bereziki nabarmenduko duela nazioarteko politika kronika, lehenengo orrialdea erabakitzen baitu gai harentzat. “El Día” egunkariak, Francisco de Yarzak izenpetutako zutabe bat ekartzen du bere orrialdetara, kezka internazionalista eta europar gaien ingurukoa, eta Landabururena berarena dirudien edukina, trataera eta baita hizkera ere antzeman daiteke haiengan. 1931tik gerra zibilaren hasiera arte, hor desagertzen da egunkaria, José Lecároz kazetariak hartuko du zuzendaritza lana. Landaburuk jarraian eta gerora hartuko ditu bere gain politikarekin zer ikusi zuzena duten hainbat ardura, bai bere alderdian, EAJ-PNV, Araba ordezkatuaz Gorte Nagusiko diputatu izango delarik 1933an, eta baita Diputatu Kongresuan ere. Hizlari apartarenak egingo ditu garai hartan. Gerra Zibilak izango dituen lehendabiziko lehen urtetan (1936-37), nazioarteko gaietarako ordezkari nagusia ez ezik, Agirre lehendakariaren hurbil hurbileko gizona ere da Landaburu, Parisen. Itzal handiko intelektual eta politikariek bilduko den gerra urte haietan, egutegietara eramango dituen hitz eta aipamen guztiak ari zaizkigu, Euskal Herriko arazoak, Europako batasunak irudikatzen duen demokraziarekin baino ez direla konponduko duen usteari buruz.

“Radio Euzkadi” bitartez Landaburuk eskaini zituen kroniken artean, 1947an eman ziren argitara ezagutzen ditugun lehendabizikoak, eta normaltasunez emango dira, Joseba Rezolak, egitasmoko sustatzaile nagusiak, aitortzen duen bezala, 1951 urte arte. Hausnarketan oinarrituriko artikuluak dira egian, irratia erakutsiko digu guztiz konfiantzakoak

(7) Eztabaida hura, pertsona bi baino gehiagoren artean emandakoa, bere osotasunean jasotzen da hemen: O.C.X.L., II. Alea; 7. orr. eta ondorengoak.

(8) Ik. “Una calle para un vitoriano. Francisco Javier de Landaburu” artikulua, Venancio del Valek idatzia; “Vida Vasca” aldizkaria, 1978; jasoa dago ere hemen: O.C.X.L.; III. Atala, 399-400. orr..

**(II)
NAZIOARTEK O
POLITIKA
KRONIKAK
“RADIO
EUZKADI”N
(1947-1951):
DEMOKRAZIA ET A
FEDERALISMO A**

eta irratia erakutsiko digu guztiz konfiantzakoak eta irratia erakutsiko digu guztiz konfiantzakoak. Hor, Landabururen ideiei zor zitzairen arretaren eta konfiantzaren beste froga bat. Landabururen pentsamenduak, haren kezka eta planteatzen dituen kritikak, egunerokotasunari heltzen diote ikuspuntu desberdinetatik.

Berreundik gora artikulu dira, Francisco de Armentia goitizenaz sinatuak haiek guztiak. Europar eta nazioarteko gaien ingurukoak erdia baino gehiago, baina arduratzen da hala ere, espainiar barne arazoetaz ere bai, euskal bizierari hain lotuak beti.

Erabatekoa da tonu pedagogikoa eta zentzu kritikoa testu haietan guztietan. Bakar batean ere ez da aldarri edota panfleto politikoaren aztarnarik, nahiz eta komunikabide mota, helburua eta garai historikoa, ezin aproposagoak izan horretarako. Ideia guztiekiko errespetua eta bihotz tolerantzia gordetzen du Landaburuk, baita euskal herriaren nahi izatearen etsairik gordinena den harekiko ere: Franco.

MRPren (Frantziar Errepublikar Herri Mugimendua) egitekoa aztertzen du hainbat artikuloetan: garrantzi oso handia atxikitzen dio kristau-demokraziari Europako geroaldian, moralean oinarritutako politika egiteko moduari esker (argi zehazten du kristau-demokraziaren pentsamoldea ez dela erlijioan bertan sustraitzen). Talde honen norabidea azaldu ondoren beste jarrera politikoekin izan dezakeen lotura jorratzen du, hala nola, sozialistekin.

Komunismoaren gaia askotan landuko du. Joseba Rezolak, Radio Euzkadiko arduradunak, artikulu bat zentsuratzen dio Euzkadiko Gobernu kideei zor zaien errespetuarekin bat ez datozten ideiak azaltzen zituelako Landaburuk. “Cuando nadie tiene razón” artikuluan komunismoaren kritika zorrotza egiten du baieztapen honen bidez: “Tan criminal es el imperio que se forma sobre una mística conservadora como sobre una pretendida necesidad revolucionaria”. Hainbat alditan kritikatu dituen totalitarioen parez pare ezarriko ditu komunistak artikulo ezberdinetan. Estatu komunistak erabilitako prozedimentuak kondenatuko ditu esaldi baten izenburupean: “Nuevas formas de esclavitud”. Bere ustez, komunismoa adibide bihurtuko da: zertan ez lukeen demokrazia bat erori beharko, hain zuzen ere.

200 artikulu hauetan zehar protagonismo handia hartuko dute bi nazioek: EEBB eta Alemania, beraiengan aurkitzen baitu Landaburuk munduko bakea bermatzeko bi pilare nagusi. Amerikar herrian ikusten du Europa gerra osteko egoeratik ateratzeko irtenbide bakarra, batez ere arlo ekonomikoari dagokionean (Marshall Plana behin baino gehiagotan azalduko digu).

Alemania, esan bezala, munduaren geroaldiaren erdigunean zehazten du Landaburuk. Zaila iruditzen zaio Alemania bere babespean duten nazioen pentsamolde bereziak eta nazismoa desarrostean ari den alemaniar herriaren ideiak bat egitea. Lehenik eta behin konpondu beharko zen arazotzat joko du hainbat artikulotan (“La Conferencia de Moscú”, “La última oportunidad: La Conferencia de Londres”, “Buscando una decisión en Berten”, “El ejemplo de los pequeños”, “Y nosotros, ¿cuándo?”, “Los alemanes y nosotros”).

Jorratzen dituen gai multzo handiaren barne bi izango ziren bere analisien objektua izatea gehienetan lortuko dutenak: federalismoa eta bakea. Bere lehenengo artikuloetatik (“La Conferencia de Moscú”tik zehazki) bi ideei horien batura azalduko die bere entzuleei: “El occidente europeo, (...), entra ya firmemente por el camino de la paz fundado en la amistad y en los intereses mutuos de orden económico”. Artikulo honetan bere hasierako baikortasuna argi adieratzen digu gerrate berri baten etorreraren ideia deusezten duenean, gerora beste zenbait alditan erabiliko duen iritzia, hain zuzen. Gerora ere bi gai hauek harremanetara dituzte: “La preocupación primordial del federalismo es salvar la paz”.(9)

“Nuevos sistemas coloniales” idazketan zehazten ditu gerora garatuko zituen federalismoaren inguruko oinarriak. Nazioen gaineko instituzioen babesean arituko da: nazio subiranotasunaren kontzeptua aldatu da bere ustez eta botere horren proportzio bat instituzio horiei eman beharko zitzaizkien, trukean gorputz erraldoi horren babeserak jasoz. Baina argi utziko digu beste eskaera oso garrantzitsua bere pentsamolde federalistan: “Pero si federar es unir, federar es también distinguir”. Esaldi horren bidez metropoli kolonizatzaileak kritikatzeko dituen bitartean, herri txikien nazionalismoen garrantzia azpimarratuko du ere (ezin digu ahaztu euskal arazoak beregan duen eragina).

Federalismoa zehaztuko du munduari koherentzia marku bat eskeintzeko primerako aukera bezala. Honen barruan nagusi izango da bere ideia federalismoa burutzeko eran: behetik gora landu behar den elkarte bezala ikusten du. Gizabanakoarenganako begirunea nahita ezkoa irudituko zaio. Hurrengo pausua herri ezberdinen berezitasunak ezagutzeko eta babesteko izango zen, “Autonomías y Federalismos” artikuloan era simple batean agertzen zaigun bezalaxe.

Honekin batera agertuko zaigu herri txikien nazionalismoaren babesle sutsua izanik. Ildo honetatik estatu inperialisten nazionalismo ideiak totalitarismoarekin harremanetan jarriko dizkigu.

Federalismoak askatasun handiagoa, mundu mailako hobekuntzak, etab. ekarriko zituen. Federalista eta unionisten ezberdintasunen berri emango digu Landaburuk (entzulegoari irakasteko nahian sartu behar ditugu aipamen hauek), baina bere jarrera beti egongo da herri txikiak elkarte horretan egoteko duten eskubidearen aldamenean. Argi utziko digu “Europa y el consejo Atlántico” artikuloan: “Federalismo quiere decir escalonamiento de poderes y no unión”. Demokrazian oinarrituz eta askatasun baldintza eskuan izanda, federalismoak arazo kontinentalei irteera ematen dien bitartean, estatuen nahigabekerietatik askatu beharko zituen nazio eta herri txikien interesak. Estatu gabeko herrien eskubideen bermea arazo larria izango da Landabururentzat.

Artikulo guztietan zehar gerra, bakea, moral internazionala eta Europaren birsorkuntzaren ideien hedapenari ekingo dio. Hasierako optimismoa gerra berri baten ezintasunean adieraziko du, batez ere jaio berria den nazioarteko moral horren pean posible izango ez zelako. Demokrazia hitza ugari topatuko dugu bere iritzi artikulo hauetan, herrien nahiaren sinonimotzat hartuta, zehazki. Bortxakeriaren aurkakotasuna behin baino gehiagotan adieraziko digu: estatuek gerra eta armadetan inbertitzen duten diru kantitatea izugarria irudituko zaio.

Europako ideia eta nortasunaren berpizkundea bultzatzen du. “Hirugarren indarra” izena emango dio hainbat alditan Europari eta SESB eta EEBBren artean gertatzen ari zuten munduaren bipolarizazioaren aurka indarra egingo zuelakoan zegoen Landaburu.

“La voz de Europa” artikuloan, hain zuzen ere, laburbiltzen du Landaburuk europazale ideiarik setatiena. Europako gobernuak ordezkatu ahal duen berezko ahots bakar baten aldarrikapena da. “Siempre hemos sido partidarios de que Europa vuelva a recobrar su rango en la vida internacional y de que la voz de Europa represente no sólo a un país europeo dirigente ni tan siquiera a las grandes potencias europeas sino a todos los pueblos del continente y de sus islas”.(10)

Palestinako autoritate krisiaren arazoa edota Koreakoa aztertuko ditu gainera. Irlandaren banaketa eta Yugoslavia bezalako nazioen egoeraren berri ere izango dugu. Gandhiren hilketaren notiziarekin batera, balio unibertsaleko pertsonaia bezala deskribatuko digu gizon hau. Prentsa askatasuna, sindikalismoa eta Turkiako hauteskundeak ere aipatuko ditu.

Ez du Landaburuk mundu mailako ezein gairik gaitzesten. Baina guztietan agertuko du Europaren demokrazia mundurako birmoldaketa gaitasun politikaren onarpenari buruzko ikusmolde zabala.

Berriro diogu, asko eta ugari direla Francisco de Armentiarrenak, kristau-demokrata oinarri aurrerakoienentzako datozten ideia europetarako agertu arazten dituzten artikuluak. Bikainen artean jaso ditugu honako izenburu hauen pean idatzitakoak: “Autonomías y Federalismos”, “Hay que personalizar Europa”; “Política Occidental”, “Los estados generales de Europa”, “Hacia la Resurrección de Europa”, “Euzkadi en la vida Internacional”, “Los modos de hacer la Federación Europea”, “España en la Federación Europea”, “Supervivencia de lo nacional”, “Nacimiento de Europa”, “Cristianismo y Democracia”, “Los alemanes y nosotros”, “Europa y el Consejo Atlántico”, “Una realización francesa para impulsar a Europa”, “¿Y ahora, qué? Después de Estrasburgo”, “Asomado al mundo”, edo “La voz de Europa”.(11)

(10) Ídem, 379-380. orr..

(11) “Radio Euzkadi” bitartez Landaburuk idatzi eta aditzera emango zituen artikulu guztiak aurkitu daitezke O.C.X.L.eko Ingo Alean, liburuki osoaren zati. Aurkideak berak eta artikuluetan bertan egindako zenbait aipamen, noiz idatzi ziren esplikatzen dituzte.

(9) O.C.X.L.eko Igo Alean, “Los Estados Generales de Europa”.

Kazetaritzarekiko Landabururen ekarria eta lan etengabeak, haren pentsamendu politikoa ez ezik, ideiak adierazi eta zabaltzeko haren nahia azpimarratzen dute. “Alderdi”-n, EAJ-PNVk Baionan (Frantzia) argitaratzen duen aldizkarian, lehen artikuluetatik bertatik uzten du argi Landaburuk bere ideia europazalea definitzen duen hezurdura sendoa: “En torno al Pacto del Atlántico”, “La lección de la Commonwealth”, “Itinerario federalista: De Luxemburgo a Estrasburgo”, edo “Dos caballeros del ideal: Emmanuel Mournier y León Blum”. Artikulu horiek guztiak dira 1949koak. 1950ean, haren zaletasun eta ideia europeistak kontuan harturik, erabat esanguratsua zaigun artikulua argitaratzen du: “Marc Sagnier, el sembrador”. (12) Aipatu hiru pertsonaia azken horiek, duten ikusmolde europazaleagatik Landabururen begirunea jasoko dutenak, euskal idazle eta politikoaentzat dira ere europar eta kristau demokrata ideien aurrerabide nabariak bezala.

Bada ere “Alderdi”-n argitaratu bere beste hainbat artikuluetan, jarrera kritiko eta borrokalaria. Esaterako, “¿Qué va a ser de Europa?” izenburua daraman artikuluan, (1953) (13), Landaburuk, Europari buruzko bere ideia sakontzen du berriz ere: “Europa –lo hemos dicho muchas veces– es mucho más que eso. El aspecto militar de la organización de nuestro Continente no es más que un accesorio, necesario, si se quiere, pero accesorio siempre, del edificio europeo. Mientras subsista la división del mundo civilizado, es forzoso considerar esa división, no en dos bloques sino como tripartita. Esto se funda en razones políticas, culturales, económicas y sociales. Se funda en la necesidad de que los derechos de la persona humana, los derechos de las comunidades naturales, los derechos del trabajador, etc., están garantizados por algo que les evite las veleidades de un Estado. La necesidad de crear Europa no es de naturaleza anticomunista; es de esencia antitotalitaria. El totalitarismo se da en Moscú; pero se ha dado, se sigue dando y puede volver a darse en países occidentales”.

Artikulo hauetan zehar berriro ere bakearen garrantzia azpimarratuko zuen autoreak. Nazioen armatze jarreraren aurka plazaratuko dituen ideien aipamena egin beharko genuen hemen: armak edukitzearen ondorio zuzentzat hartzen du hauen erabilera.

Radio Euzkadin landutako gai bat berreskuratzen du hemen ere: komunismoa. Langileetatik komunismoa desarrostearen beharra adieratzen du. Atlantiar Paktua ekimen honetarako pausu bat iruditzen bazaio ere, ez du nahikotzat hartuko.

(12) Zentzu praktikoari men eginez, “Alderdi”-n argitaratu eta aipatu artikulua, hemen jaso dira: O.C.X.L, II. Alea, 57-72. orr., biak barne.

(13) Ik. O.C.X.L., II. Alea, 89-90. orr.

**(III)
ARTIKULUAK
“ALDERDI”-N
ARGITARATUAK
(1949-1963):
ESTATUAREN
JOERA
TOTALITARIOAREN
AURREZ AURREKO
HUMANISMOAREN
DEFENTSA**

**(IV) EUZKO
GAZTEDIK O
“AZKATASUNA”-N
ARTIKULUAK
(1946-47):
KRISTAU
DEMOKRAZIAZ
IKASTAROB AT**

**(V) “EUZKADI”
ALDIZKARIA
(CARACASEKO
EUSKAL GUNEA)
(1947-49):EUROPAK O
BATASUN IDEIAREN
INGURUAN BERRIZ
ERE**

Britania Handiaren jarrera goraiatzan du bere kolonien (India eta Irlanda zekazki) independentzia aurrera eramateko unean, demokraziaren begirunea eta istilurik gabekoa jotzen baitu Landaburuk.

Federalismoaren oinarri eta helburuak ere ikusiko ditugu: federalismoa ez da antolapen politiko bat besterik, baizik eta birmoldatze ekonomiko eta sozial baten programa osoa du bere barne.

Europaren berpizkundearen inguruan berriro ere kontinente hau aipatuko du munduko bi potentzi politikoen arteko bitartekari eta eskubideen babesle bezala. Aldi berean EEBB eta SESBaren metodoak askatasun ezaren barne sailkatzen ditu.

Zehaztu bi urte horietan zehar, Landaburuk argitaratzen dituen artikulua multzo ez hain handiak, osotara, Kristau Demokraziaren duen usteari buruzko ikastaro teorikotzat jo daiteke. Kazetariak, politikariak, legegileak aintzat hartzen du argitalpen horrek dituen irakurleen gaitetasuna, eta haiei begira erantzen dio idatzitakoari ildo pedagogiko nabaria. Honetan adieraziko digu kristau-demokraziak kristautzatik ondorioztatutako eredu bidez politika eta gizartea antolatu nahi duen bezala, horrek ez duela esan nahi jarrera politiko hau erlijioarekin nahasturik dagoenik. Kristau demokrazia kapitalismo eta komunismotik aldentuta ezartzen saiatuko da.

Landabururen ideien ikastaroa den horretaz gainera, pentsamendu politiko demokratikoaren parez pare ezartzen du idazleak euskal nazionalismoa. “El Nacionalismo vasco y las corrientes ideológicas mundiales” bere artikulua, horretara dator, hau da, munduan barna diren kristau demokraziako mugimendu aurrerakoien eta EAJ-PNVren artean diren (harenak, Landaburuk ere defendatu eta bere gain hartzen dituen ideiak) berdintasunak frogatzera eta baieztatzerara hain zuzen ere.(14)

Azkenik esan beharko genuen hemen ere, eta euskal egoeraren analiarekin erabat lotuta, federalismoa aurrera eramateko modurik hoberena bezala sailkatuko duela berak hainbat alditan esandako behetik gorako antolapena, gizabanakoaren garrantzia adieraziz honetan ere.

Ezin bestela izan. Urte horietan, Landaburuk egingo dituen argitalpen zein aldizkari edota egunkarietan komentario guztiekin dator haren ideia europazalearen garapen berri bat. Horrela, “Euzkadi” aldizkarian, Caracaseko Euskal Gunea sustatuko duena, Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Elkarte zer den adierazten du

(14) “Azkatasuna” aldizkariako artikulua, hemen: O.C.X.L., III. Alea, 363 or. eta ondorengoak.

sakon eta zabal. Aldizkarian, N.E.I. haietan Agirre lehendakariaren eta Landaburu beraren arteko bilerari buruzko berria emateaz gain, europazale maila goreneko artikulua bi ere argitaratzen ditu politikari gasteiztarrak: “Un paso decisivo hacia la Federación Europea” eta “Las dos Europas”.(15)

La Hayan, 1948an ospatu biltzarrak, europar eraikuntzari ekarrikodion bultzadaz ari da lehen artikulua horretan, eta Europar Federakuntzaren aldekoa agertzen da, Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko liskar uneak gaintzeko modukoa azalduz.

Landaburu poztuko da La Hayako biltzarran eta federalismoaren inguruan munduko jatorri hain ezberdineko eta, batez ere, ideia eta pentsamolde hain bestelakoak bereganatzen dituzten gizakiak elkartuta ikustean.

Bigarren artikulua horretan, “Las dos Europas” (1949), Bruselan ospatu Europar Mugimenduko Nazioarteko Kongresuaren berri ematen digu Landaburuk eta europar bere ideien nondik norakoak zerrendatzen ditu. “Europa, pues –idazten du Landaburuk–, se está haciendo y se está haciendo en reducida área geográfica, susceptible un día de ampliación. No entrará en ella ningún país que no tenga gobierno democrático, porque los que lo son no admiten a los otros y porque los que no lo son no quieren entrar. Si un régimen cualquiera dictatorial deseara integrar la nueva Europa y hubiera de cumplir las condiciones de ingreso, tendría que dejar de ser dictatorial automáticamente. En cambio, los pueblos que sufren su privación de la libertad verán en esa Europa un imán irresistible, una esperanza inagotable, un puerto de definitiva salvación”.

“El movimiento Europeo –amaieran Landaburuk– no es un organismo oficial, es la síntesis de los sectores de opinión popular que demandan el ‘¡Fiat Europa!’”. Ha tomado ese Movimiento en pocos meses tanta consistencia y ha ganado tanto prestigio que, de hecho se ha convertido en el órgano consultivo de los Gobiernos occidentales para todo lo que sea caminar hacia esa meta europea. Cuando los gobiernos se detienen en el camino, cuando se retrasan o se olvidan, el movimiento Europeo y las organizaciones que le sirven de base y que son diversas social y políticamente, excitan a los Gobiernos a seguir adelante. Así podrá constituirse el núcleo de Europa antes de que este año concluya. Sirva esta prisa para que nosotros no nos durmamos en el cumplimiento de deberes correlativos con esa empresa y cuyo resultado sería el de que nuestro pueblo, extraído del catálogo de las naciones de la Europa ausente, pudiera figurar entre los fundadores de esa Europa nueva”.(16)

(15) Caracaseko “Euzkadi” aldizkari artikulua, hemen: O.C.X.L., III. Alea; 339. or. eta ondorengoak.

(16) Ídem; III. Alea; 360-361. orr.

(VI)
“EUZKO-DEIA”
ALDIZKARIAN
ARTIKULUAK
(1947-62):
EUROPAR
IDEIAREN
ZERGATIAN
AITZINDARIEN
ALDARRIKAPEN
BERRI B AT

(VII)
EUROPA, IDEIA
MODURA, “LA
CAUSA DEL
PUEBLO VASCO”
LIBURUAN (1956)

Hainbat artikulua argitaratu zituen Landaburuk “Euzko-Deia”-n, Mexikon Euskal Gobernuak zuen Delegazioak babestutako aldizkarian. 1947koa da aldizkariak jasotzen duen “El ejemplo de los demócratas cristianos vascos” artikulua, bertan, Landaburuk, neba-arreben arteko memoria aldarrikatzen du, Mauriac, Maritain, Bidault edo Struzoren euskaldunen izate arrazoiarekin azaltzen duten elkartasun ideiarekin bat eginez. NEIko kideen artean eman ziren hainbat bileren berri ere ematen du edota ari zaigu ere bai Kristau Demokraziak Parisen ospatzen duen Kongresuaz, 1960ko azaroan. Hitz bereziak eskainiko dizkio Agirre lehendakariari, “política moldeen berritzailea” (1961) (17) baita harentzat.

Landabururen politika ideien hezurdura, arestian aipatu dugunez, gune ezberdin eta garai desberdinetan idatzi eta egindako artikulutan, hitzalditan eta solasalditan barrena dago sakabanaturik. Haren pentsamendu politikoaren oinarrikoena hala ere, “La Causa del Pueblo Vasco” liburuan topa dezakegu. Erbestean idatziko du Landaburuk liburu hori, Euskal Herrira itzultzea alferrikako asmoa daitekeela jakinaren ganean dela. Horregatik azpimarratzen du hasieratik, Estatu Batuek frankismoaren alde hartuko duten jarrera sortu arazten dion samina eta ezina, NBE onartzea ekarriko zuen hura. Landaburuk gainera, argi aurre ikusten du, euskal belaunaldi berriek erreferentzia politiko zehatzak eskatzen dituztela europar historian garai berri bati aurre egin ahal izateko.

Komunitatearen ordezkari gisa Estatuaren ideian sakontzeko, Landaburuk, Euskal Herria garaikidearen historia aztertzen du liburu horretan, eta denboran aldaezinak bezala onartzen ditu haren ezaugarri nazionalak. Horrela zehazten du ezaugarri horien ideia: arraza, hizkuntza, historia, ideia juridikoak (Francisco de Vitoriaren pentsamendu ekartzen du berriro gogora) eta kultura. Eta baieztatuko du: “Las grandes uniones de Estados... no pueden constituirse válidas y durablemente más que sobre el respeto a la diversidad de las entidades menores que van a formarlas”. (18) Landabururena erronka abegikorra da hala ere, sortu daitekeen Euskal Estatu “demokratikoa, konfederatua, internazionalista” izan daitekeelako.

Landaburuk, autodeterminaziozko askatasun aukera ideien aldekoa, aipatu liburu kapitulu batean (“De la Nación a Europa y al mundo”) laburbiltzen ditu federalista, internazionalista eta europazale ideiak, hiruak bat. Horrela mintzo da, sendo: “La idea de la Federación Europea, idea antigua, ha renacido con fuerza después de

(17) “Euzko-Deia” aldizkari artikulua, hemen: O.C.X.L., IV. Alea; 7. Or. eta ondorengoak.

(18) Ik. “La Causa del Pueblo Vasco”, O.C.X.L., III. Alea, 249. or. eta ondorengoak, Aipua, 275. or..

la última guerra mundial, porque se la considera como una buena fórmula de defensa de la persona humana contra los excesos inherentes al totalitarismo, y su finalidad primordial es la de que en ningún rincón de esta parte del Mundo vuelvan a repetirse las experiencias crueles del absolutismo de Estado”. “Hay gentes que creen advertir una contradicción entre nuestras aspiraciones nacionalistas y nuestras ilusiones europeas”, ikus arazten digu Landaburuk, adierazteko gero: “El nacionalismo, tal como nosotros lo estimamos, se completa con el federalismo europeo”. Are gehiago: “Euzkadi es un país europeísta... Una Europa organizada democráticamente resuelve muchos conflictos y concilia muchos antagonismos... Europa democrática es una garantía y un incentivo a la democratización de España, y los hombres como los pueblos del Estado necesitan siempre de la protección de una instancia superior contra los posibles abusos de ese Estado”.(19)

Iñaki Anasagastik, “Obras Completas” izena hartzen duen horren III. Alearen aurkezpenean adierazten duen modura, “La Causa del Pueblo Vasco” liburuak, Landabururena, “causó en su tiempo el impacto de una piedra en un estanque”. Eta Munduko Euskal Lehenengo Kongresuan (París, 1956) aurkeztua izan zen liburu horri buruz, Anasagastik gehituko du: “fue el manual ideológico de toda una generación”. Beste zenbait egileek, Gurutz Jauregik esaterako, bat egiten dute, liburu hark, ETAk gerora hartuko dituen hainbat teorien nondik norakoan eragin zuzena izan zuela adierazterakoan.

Hala da, Kongresua ospatu baino pixka bat lehenago agertu zen liburu eskuratuko dio Landaburuk Manuel de Irujori, haren adiskideari, aipatu kongresu hartan Politika Alorra zuzendu zuenari. Nazioarte mailako eginbeharrak bete zituen ordurako Irujok EAJ-PNV eta Euskal Gobernuaren izenean, eta harreman politiko eta pertsonala estua gordetzen Landabururekin. Kongresurako ponentzia bat gehiago bezala bidalitako liburuarekin datorren eskuizkribuan, Landaburuk argitu eta onartzen du: “La celebración del Congreso Mundial Vasco no ha sido ajena del todo a la publicación del libro ‘La causa del pueblo Vasco’, que acaba de aparecer con mi nombre”. Horrela aitortzen du Landaburuk, bere ideiak duten eragin berehalakoa, baina zuhurtziaz jokatzuz, eta buru zurikeriatik urrun, argi baino argiago utziko du ere ez diotela ideia horiek “inongo eta inolako erakunde, gobernu edo alderdiren ikusmoldeari erantzuten”.

Areago beti Landabururen hausnarketa, eta aipatu eskuizkribuaren bigarren paragrafoari gehitzen dio bere asmoaren gakoak: “Suscitar inquietudes y proyectos que, dentro de una variedad inevitable y hasta deseada, fijen nuestro pensamiento colectivo respecto a la organiza-

**(VIII)
LANDABURU,
MUNDUKO
EUSKAL
KONGRESUAN
(PARÍS, 1956)**

ción futura de Euskadi”. Badirudi Landaburuk, EAJ-PNVtik barrura eta kanpora bere pentsamenduaren eraginaz jabetua, politika bera ere ulertzeko modu berri baten asmatzailea bezala hartzen duela bere burua. Eta egia esatera, Munduko Euskal Kongresuan Landabururen parte hartzea Kultur alorrean zehazten da, hartan arduraduna izan baitzen, eta Euskal Gobernuak eta bere alderdiak berak harenganako zuten goi estimazioaz hitz egiten du horrek, teoriko politikariarena baino intelektualaren bere erantzunkizuna onartuz. Eta badira estimazio horren testigantza jasotzen duten argazkiak ere, Munduko Euskal Kongresuan bertan egindakoak. Landaburu, “Diputados a Cortes” goiburudun atzealdean agertzen da haietan, nahiz eta denborak atzean utzia zuen aspaldi 1933ko urte hura.

Eta bada zerbait gehiago, Kongresuko (20) sesio ezberdinak erreparatzen baditugu, ez dugu politika alorrari dagokion ezer aurkituko. Gutxi batzuk baino ez dira europar eta nazioarteko esparruan euskal ekintza politikoaren garrantziari buruzko aipamenak, argi ikusiko dugunez, ez dio paradoxikoa izateari uzten, Europa baita ere kongresua gauzatuko den esparrua: París.

Baina argi dagoena da, Landabururen ideia europazaleak eta federalistak, bai EAJ-PNVek azaldu ponentzian bai aipatu Kongresuko Politika Alorreko oihartzun hartzen dutela. Nabaria da, 50eko hamarkadako urte haietan, Alexander Ugalde Zubirik, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluari eskainitako bere liburuan adierazten duen bezala: “Para los dirigentes de Partido Nacionalista Vasco el esfuerzo doctrinal consistió en compatibilizar nacionalismo y federalismo”.(21)

Horrela, EAJ-PNVek Munduko Euskal Kongresurako aurkezten duen ponentzian, finkatzen dira, Landabururen ideiak ia hitzez hitz hartuak, alderdiaren “demokrata eta kristau” baldintzak eta, IV. atalean (22) hala adierazten da: “El Partido Nacionalista Vasco apoya las iniciativas para la puesta en marcha, sobre principios de libertad y democracia, de una Organización europea, que tenga por objetivos la paz mundial y el bienestar económico-social de las poblaciones; se muestra partidario de las concepciones federalistas que han de permitir la creación de los poderes europeos sin mengua de la plena personalidad de cada uno de los pueblos –incluido el vasco– que han de ser

(19) “La causa del Pueblo Vasco” liburutik aipua, hemen: O.C.X.L., III. Alea, 311-316. orr.

(20) Ikus “Euskal Batzar Orokorra. Congreso Mundial Vasco. 25 aniversario” liburuak; Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia; Vitoria-Gasteiz, 1981.

(21) Ik. “Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua (1951-2001). Europako federalismoari euskaldunek egindako ekarpena”, Alexander Ugalde Zubiriarena; Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua; Vitoria-Gasteiz, 2001; 191. or.. Liburuak, 1940 urtetik abiatua, Europar Mugimenduan euskaldunek izandako ibilbidea aztertzen du. Liburuak eskaintzen duen Bilduma dokumentalean, euskaldunen gertaera federalistas eta europeista ezberdinen argiriak bildu dira, haietan da protagonista nagusia Francisco Xavier de Landaburu.

(22) Ikus “Euskal Batzar Orokorra. Congreso Mundial Vasco. 25 aniversario”; 181. or..

comprendidos en la nueva estructura; y propugna por la Organización mundial correspondiente basada en los principios enunciados”. Ponentzia horren bitartez egiten dio EAJ-PNVek NBERi deia, ez dadi-la egingo duen ezer frankismoaren aldeko jarreratzat ulertu ahal izan.

Munduko Euskal Kongresua, politika esparruan, Giza eskubideen aitortpen orokorra izenpetzen da. Aipatu Pariseko kongresuraino hurbilduko da, De Gaulle jeneralaren ordezkari modura, Errepublikako lehendakariaren ordezkari, René Cassin, Baionako senataria, eta Giza Eskubideen Aitortpen Unibertsaleko idazlea. Ondorioetatik erakunde “supranazionalak” sortzeko beharrari eta beste honi, “la integración de Naciones y Estados en organismos superiores, como Europa y las Confederaciones Americanas” egiten zaien aipamena, “La Causa del Pueblo Vasco” egileak duen izpiritu europazaleari erantzuten dio. Nahiz eta, arestian aipatu dugun bezala, hitzik ere ez duten esango aipatu Kongresuko akta liburuak, Landabururi berari bidalitako agiri berri emaile haietan hain zuzen, eztabaidan jarritakoa ez ote zen Landabururen liburuaren mamia bera.

Xabier de Landaburuk, gazte-gaztetandik lantzen du harreman politikoaren ikusmolde unibertsala. Francisco de Vitoria legegileari, Nazioarteko Zuzenbide lehendabizikoaren egileari, egiten dion defentsa, gainera, Zuzenbideko bere ikasle baldintzari erantzuten dio, eta Vitoriaren ideiak, gerora Landaburuk idatziko duen bezala, Kristau Demokraziaren pentsamendu politikoaren iturri ezinbestekoa osatzen dutela ulertzen du. KDa, Landabururen parte hartze zuzena eta oniritzia ezagutuko duena, gerra aurreko eta osteko Europan ematen den mugimendu unionisten bultzatzaile nagusia da.

Landaburuk, Agirre lehendakariarekin bat lankidetzat estuan, nagusitasun osoz sustatzen eta garatzen du Euskal Gobernuak eta euskal nazionalismoak izaera europazale duten pertsonalitate eta bilgune nagusiekin gordetzen duten harremana, mundu desoreka handiak gainditzeko irtenbidea bezala aitortuko baitute gerora izan daitekeen Europako batasuna.

1956an, Munduko Euskal Kongresua antolatzen denean, Politika Alorrari komunikabide gisa proposatzen dio Landaburuk “La causa del pueblo vasco” (1956) bere liburua, bertan azaltzen baitu, “De la nación a Europa y al mundo” kapituluaren zehazkiago, bere ideia europazalearen ildo oinarritzakoa.

Hauek lirareteke, gure ustez eta gai atalka laburbildurik, Landabururen artikulua esanguratsuenak, horietan aurkituko baitugu haren europazale ideia politikoaren hezurdua sendoa:

Kristau Demokrazia:

“La expresión de las ideas demócrata-cristianas”

“Qué es la Democracia Cristiana”

“Democracia Cristiana y comunismo”

(X)
ERABILITAKO
BIBLIOGRAFIA
ETA
HEMEROGRAFIA

(IX)
ONDORIOAK

Europeismoa, Federalismoa eta nazionalismoa:

“De Luxemburgo a Strasburgo”

“¿Qué va a ser de Europa?”

“El pueblo vasco y Alemania”

“El nacionalismo vasco y el Federalismo”

“La nación real y el concepto evolutivo del Estado”

“Un paso decisivo hacia la Federación Europea”

“Democracia Vasca”

“El nacionalismo Vasco y las corrientes ideológicas mundiales”

A) Bibliografía

Anasagasti, Iñaki (eta San Sebastián, Koldo)

– *Los años oscuros. El Gobierno Vasco-El exilio (1937-1941)*, Txertoa, Donostia, 1985.

Amézaga, Elías

– *Escritores Vascos*, V. alea, Bilbo, 1987.

Bilbao, Jon

– *Eusko Bibliografía*, Auñamendi, Donostia.

Estomés Zubizarreta, Idoia

– *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1983.

Landa buru, Francisco Xabier de

– *Obras Completas*, I, II, III eta IV liburuak, Ekintza argitaletxea, Bilbo, 1986.

– *La Causa del Pueblo Vasco*, en *Obras Completas* (O.C.X.L.), III liburua; Bilbo, 1986.

– “Un paso decisivo hacia la Federación Europea”, en “Euzko Deia” (París), 1948-05-31.

Pablo, Santiago de (eta beste batzuk)

– *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco. II (1936-1979)*, Crítica, Bartzelona, 2001.

Ugalde Zubiri, Alexander

– *Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua (1951-2001) Europako federalismoari euskaldunek egindako ekarpena*, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua, Gasteiz, 2001.

AA.AA.

– *Euskal Batzar Orokorra. Congreso Mundial Vasco. 25 aniversario*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1986.

– *Antología de textos políticos del exilio vasco*, José Ángel Ascunce eta beste batzuen edizioa, Eusko Jaurlaritza, Donostia, 1994.

– *La cultura del exilio vasco II*, José Ángel Ascunce eta beste batzuen edizioa; Eusko Jaurlaritza, Donostia, 1994.

B) Hemerografía

– “El Heraldo Alavés” egunkaria

- “El Día” egunkaria (Francisco de Yarzaren nazioarteko kronikak, 1932. urtea)
- Leizaola, Jesús María de: “Vascos en el Movimiento Europeo”, “Muga” aldizkaria, 3. zenb, 1980. urtea, 74-77 orr.
- San Sebastián, Koldo: “Muga” aldizkaria, 12. zenb, 1980. urtea, 108-112 orr.

DOCUMENTACION Y BIBLIOGRAFIA

Coro RUBIO POBES. Guerra y memoria (La “destrucción” del acta del Convenio de Vergara en 1873). (Pág. 205)

Guerra y memoria (La “destrucción” del acta del Convenio de Vergara en 1873)

CORO RUBIO POBES*

El 31 de agosto de 1839 los generales Espartero y Maroto escenificaban mediante un abrazo en Vergara la firma del convenio que ponía fin a la primera guerra civil española y que un día antes habían rubricado los militares que lo negociaron en Oñate (1). El abrazo era necesario; más allá de los términos del convenio y de lo que se pudiera cocinar entre elites militares y políticas, había que proporcionar a las masas un símbolo de fácil comprensión que transmitiera la idea de que aquella sangrienta y fratricida guerra terminaba sin vencedores ni vencidos y que los miembros de la familia enfrentada se reconciliaban con un fraternal abrazo que enterraba para siempre en el olvido la violencia y la destrucción que durante seis años habían asolado el territorio vasco. Se quería efectivamente olvidar, al menos querían olvidar una parte de los contendientes, aquella que estaba más interesada en que la paz y la armonía regresaran al *país de los fueros*, es decir, las elites que dominaban las instituciones forales y que habían apostado por el bando cristino como mejor garantía para la conservación del orden foral en los tiempos de revolución que sacudían a la monarquía española desde 1808, elites cuyo grueso alimentaba desde mediados de los años 30 las filas del fuerismo. Ellas se apresuraron en hacer ver a la sociedad vasca y española que en las Provincias Vascongadas se había instalado inmediatamente tras el final de la contienda una “perfecta armonía y dichosa paz” sin dejar rastro de aquella, que “los partidos se han confundido, las opiniones encontradas han desaparecido y reunidos todos los vascongados bajo de la bandera de paz y fueros presentan al mundo civilizado el noble y nuevo ejemplo de una gran familia estrechamente unida” (2), y –lo más importante de este dis-

* Universidad del País Vasco

(1) Agradezco al catedrático de la Universidad del País Vasco Santiago de Pablo las valiosas referencias documentales que me ha proporcionado para la elaboración de este artículo.
(2) Son las palabras del diputado general de Álava Iñigo Ortés de Velasco en el discurso de apertura de las juntas generales alavesas de mayo de 1840.